

Ebazpena: R09/2023

Espedientea: 17/2013

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita PISL zergapekoaren 2006ko BEZa egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 17/2013 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- PISL enpresaren egoitza fiskala Bizkaian dago eta eraikinen sustapenean dihardu. Eratu zenetik, BFA-n soilik aurkeztu ditu aitorpenak.

2.- 2012ko apirilaren 23an, BFAk egiaztapen mugatuko prozedura bat hasi zuen, 2011. urtean eskatutako itzulketaren egokitasuna zehazteko.

Prozedura horretan, honako inguruabar hauek egiaztatu zituzten:

a.- Eskatutako itzulketatik, 667.019,52 euro 2006. urteko jasandako BEZaren kuotei zegozkien.

b.- 2005. urteko eragiketa-bolumena 6.000.000 eurotik gorakoa izan zenez, zergapekoak 2006. urtean eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu behar zituen zergak.

c.- 2005ean, lurralde erkidean egindako eragiketa-bolumenaren proportzioa % 75etik gorakoa izan zen.

d.- 2005 eta 2006 urteetan sustatutako eraikin guztiak Madrilen kokatuta zeudela.

3.- BFAk 2012ko uztailaren 23an eskatu zion ZAEARI 2006an jasandako kuoten kengarritasuna egiaztatzeko, ikuskatzeko eskumena zegokiola iritzita.

4.- 2012ko abuztuaren 1ean, ZAEAK atzera bota zuen eskaera, zergapekoak ez ziolako Estatuari 2006ko BEZari buruzko autolikidaziorik aurkeztu, eta, beraz, zerga-zorra (kasu honetan, kreditua) egiaztatzeko eskubidea preskribatuta zuelako.

5.- 2012ko irailaren 6an, zergapekoak 2011ko 390 ereduak aurkeztu zion Estatuari, 677.995,15 euro itzultzeko eskatuz. Ondoren, 2012ko azaroaren 23an, 2011ko laugarren hiruhilekoaren autolikidazioa aurkeztu zuen, itzulketa eskatuz.

Horiek ziren ZAEARI aurkeztu zizkion lehen autolikidazioak.

6.- 2013ko otsailaren 11n, ZAEAk ikuskapen-prozedura bat hasi zuen 2011ko BEZari zegokionez, eta prozedura horretan desadostasun-akta bat egin zuen 2013ko apirilaren 15ean (A02 72238005), itzulketa ukatuz inguruabar hauengatik:

a.- Zergapekoak ez zion Estatuari 2006ko BEZari buruzko autolikidazioa aurkeztu 4 urteko epean, jasandako BEZ kengarriaren kuota kontsignatuz, eta kuota hori konpentsatu nahi zuen.

b.- Autolikidazio hori ere ez zuen helarazi BFAk preskripzio-epearen barruan.

c.- Kuota nahikoa ez izateagatik jasandako BEZa ez bada konpentsatu 4 urteko iraungipen-epean barruan, autolikidazio batean jaso zenetik hasita (2006. urteari dagokiona), 4 urteko epea hasiko da itzulketa lortzeko.

d.- Beraz, 2011. urtearen amaieran eskatutako itzulketa epearen barruan dago.

e.- ZAEAk ez du eskumenik 2011. urtea egiaztatzeko.

f.- Nahiz eta, hasiera batean, jasandako BEZaren kuotak kengarria izan behar zukeen Estatuaren aurrean, haren aurrean eskubidea galtzea ez da oztopo konpentsazioa emaitzarik gabe egikaritu den Administrazioak, hau da, BFAk, itzulketa egin dezan.

7.- 2013ko apirilaren 16an, PISLek BFARI jakinarazi zion Estatuaren ebazpen ezeslea.

8.- 2013ko ekainaren 10ean, BFAk inhibitzeko errekerimendua egin zion ZAEari, zeinak 2013ko uztailaren 11n baztertu baitzuen.

9.- 2013ko uztailaren 22an, BFAk gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, zeina 17/2013 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Jasandako BEZaren kuotak konpentsatzeko eta itzultzeko eskatzeko eskubidea galtzea

Jasandako BEZaren kuota bat kentzeko eskubidea, oro har, kuota horren sortzapenarekin batera sortzen da, eta jasaten den aldiari dagokion autolikidazioan erabil daiteke (BEZaren Legearen 99.Bat artikulua).

Hala ere, kuota kengarriak ondorengo autolikidazioetan ere erabil daitezke, baldin eta 4 urte igaro ez badira sortu zirenetik (BEZaren Legearen 99.Hiru artikulua).

DG Tk 2004ko otsailaren 9an egindako kontsultaren arabera, kuotak sortzapen-aitorpenaren osteko batean sartuta, baina horren ondorengo lau urteetan, eta betiere azken aitorten horri dagokion aldiari sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen bada, lau urteko iraungitze-epe berri bat hasten da, eta, epe horretan, aipatutako kuotak konpentsa daitezke.

Jasandako BEZaren kuotak (sortutako BEZa nahikoa ez izateagatik) konpentsatu ezinik 4 urteak igaro ondoren, eta itzulketa eskatu gabe, Auzitegi Gorenak 2011ko apirilaren 5eko epaian (ECLI: ES: TS: 2011:2412) eta 2013ko irailaren 20ko epaian (ECLI: ES: TS: 2013:4832) adierazi du ez dela itzulketa horretarako eskubidea galtzen; izan ere, zergapekoak Ogasun Publikoaren aurkako kreditu bat du, bere kausatik baztertzen dena eta iraungitze-epea amaitu ondoren ere kobratu ahal izan behar duena. Kreditu-eskubide hori zerga-arloko preskripzio-epe orokorraren mende dago.

3.- Saldoak administrazioen artean eskualdatzea

Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko epaiaren arabera (ECLI:ES:TS:2010:4101), Ekonomia Itunak *likidazio-aldi berdineko BEZaren gaineko zerga-ahalmena administrazioen artean banatzea* –era sinkronikoan– bakarrik hartzen du barnean, ez ondoz ondoko aldietan banatzea –era

diakronikoan—; horixe dio, oinarrian, 29. artikuluan, Bat eta Bost apartatuetan. Manu horien ondoriozko banaketa-sistema likidatutako kuoten edo negozio-zifra erlatiboaren proportzioan itzuli beharreko zenbatekoen banaketan oinarritzen da (Ekonomia Itunaren 27.Bat.Bigarrena art.), administrazio eskudunak erabat bereizita. Banaketa sinkronikoari dagokionez, administrazioen artean BEZaren saldoak ez komunikatzea zuzenean ondorioztatzen da Itunaren 29.Bost artikulutik. Horren arabera, beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

Aurrekoa kontuan hartuta, adierazten du arau orokor aplikagarria dela *konpentsazioak edo itzulketak sortu diren administrazio publikoen artean banatzen direla, eta, beraz, ez dela beste administrazio batzuei konpentsatzeko BEZaren saldorik eskualdatu behar.*

4.- Aurreko aldi batean sortutako konpentsatu beharreko saldoa egiaztatzea

Auzitegi Gorenaren 2013ko irailaren 20ko epaiak (ECLI:ES:TS:2013:4832) adierazten du, betiere, itzulketa-eskaera jaso ondoren, Administrazioak bere egiaztatze-ahalak abian jar ditzakeela prozeduraren barruan, itzulketa-eskubidearen eta egiaztapen-ahalen baterako indarraldia bereizten edo auresuposatzen baitute. Hala ere, egiaztapen administratiborako ahalmenak TLOren 106.5 artikulutik eratorritakoak baino ez dira, orduan indarrean zegoen idazkeran (baliabideei eta probaren balorazioari buruzko arauak), honako hau ezartzen baitzuen: *Kompentsatutako edo konpentsatzeke dauden oinarriak edo kuotak edo aplikatutako edo aplikatzeke dauden kenkariak preskribatutako ekitaldietan sortutakoak balira, horien jatorria eta zenbatekoa kontabilitatea eta dagozkion dokumentu-euskarriak barne hartu zituzten likidazioak edo autolikidazioak erakutsiz egiaztatu beharko dira.* Beraz, konpentsatu beharreko zenbatekoak edo etorkizuneko ekitaldietarako zerga-kredituak egiaztatu diren ekitaldi bat preskribatzean, Administrazioak ezin ditzake aldatu lehenengo

ekitalditik datozen zenbatekoak, baldin eta beste horietara eskualdatu badaitezke. Horrenbestez, Administrazioaren jarduna interesdunari aipatu den dokumentu-justifikazioa eskatzera mugatu behar litzateke.

Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko Epaiak (ECLI:ES:TS:2010:4101) ezarri duenez, Ekonomia Itunaren 29.Sei artikuluan ezartzen den BEZa ikuskatzeko eskumenen banaketak ez du aurreikusten Administrazio batek egiaztatu ahal izatea beste Administrazio bat eskuduna zenean sortutako kreditu fiskalak, eta hori ez da arazo; izan ere, adierazi den bezala, ez dago inongo kreditu fiskalen transferentziarik administrazioen artean.

5.- Autolikidazioa eskumena ez duen administrazioan aurkeztearen ondoreak eta BEZaren neutraltasunarekin zer lotura duen

Arbitraje Batzordeak, 74/2022 Ebazpenean, autolikidazioa eskumenik ez duen Administrazioan aurkezteak dituen ondorioak azaldu zituen (kasu hartan, diru-sarrerarekin, baina *mutatis mutandis* aplika dakioko kasu honi, konpentsazio-eskaerarekin eta, ondoren, itzulketa-eskaerarekin), eta horren bosgarren oinarri juridikoa osorik errepikatzen da:

Bestalde, 230/63 Legearen bidez onartutako TLOren 95. artikulua honako hau adierazten du:

Bat. Partikularrek eskumenik ez duten organoetan jarduteak ondoreak izango ditu.

Bi. Hala ere, administrazio-organoak eskumenik ez duela iritziz gero, honako erabaki hauetako bat hartu beharko du:

a) Eskudun jotzen duen organoari jarduketak zuzenean igortzea.

b) Interesdunek aurkeztutako deklarazio edo dokumentazioa itzultzea, eskumenduntzat hartzen duen organoa eta haren aurrean aurkezteko epea jakinaraziz.

Indarrean dagoen TLOren aurreko doktrinak interpretatu zuen, lehengo 95. artikulua arabera, eskumenik ez duen zerga-administrazio bati egindako ordainketaren efikaziarik ezaren eremua erabateko eskumenik ezaren kasuetara mugatzen zela. Eskumenik ez zegoen kasuetan, ordainketak kitzatze-ondoreak zituen.

Indargabetutako Bizkaiko martxoaren 26ko Zergei buruzko 3/1986 Foru Arau Orokorraren 95. artikulua hau ezartzen zuen:

Ekonomia Itunean ezarritakoa hargatik eragotzi gabe, eskumena duena ez beste zerga-administrazio baten aurreko gizabanakoen jarduketak ez du ondoriorik izango.

Gaur egun, Bizkaiko ZFAOren 59. artikulua eta TLOren 61.1 artikulua hauxe adierazten dute:

Zerga-zorra eskudirutan ordaindutzat hartuko da zenbatekoa organo eskudunen, bulego likidatzaileen edo hura onartzeko baimena duten erakundeen kutxetan sartzen denean.

Honako hau adierazten dute, berriz, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurralde Erkideko Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorraren 33.3 artikulua eta abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduaren 10.2 artikulua:

Ordainketak jasotzeko eskumenik ez duten organoei edo horretarako baimenik ez duten pertsonen egindako ordainketek ez diote ordaintzeko betebeharra kenduko zordunari, hargatik eragotzi gabe ordainketa bidegabe onartzen duenaren erantzukizuna.

Bizkaiko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak eta Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrek argi eta garbi adierazten dute ordainketa horiek ez dutela zorduna bere ordainketa-betebeharretik askatzen; hala ere, ulertu behar da eskumenik ez duten organoetan egindako ordainketak ez direla guztiz eraginkortasunik gabekoak, egoera hori eskuduntzarik ezagatik gertatzen denean bederen, eta ez eskumenik ezagatik zentzu hertsian. Eskumenik eza erabatekoa izanik ere, eskumenik ez duen organoak ordainketa eskudunari bidaltzen badio, Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrek eta Bizkaiko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak hirugarrenek egindako ordainketari emandako liberazio-ondorioak ere gertatuko dira.

Irizpide orokorrarekin inkoherentzia nagusia Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Legearen 106. artikuluan zegoen, baina auzitegi ekonomiko-administratibo nagusiaren arabera, efikaziarik gabe gelditu da Tributuen Lagapenari buruzko 22/2009 Legearen 55. artikulua onetsi ondoren. Hark honela dio:

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergen, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergen dokumentuak eta autolikidazioak, (...) aplikatu beharreko lotura-puntuen arabera errendimendua dagokion autonomia-erkidegoko bulego eskudunean bakarrik aurkeztu eta kitatze-ondoreak sortuko dira.

Eskumenik ez duen Zerga Administrazioan egindako ordainketak efikaziarik ez duela berresten dute Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak, 1993ko ekainaren 15eko epaian (ECLI:ES:TS:1993:14660) eta 1998ko martxoaren 21eko epaian (ECLI:ES:TS:1998:1891) –Errentaren gaineko zergari eta Sozietateen gaineko zergari buruzkoak, hurrenez hurren, kasu batean Foru Ogasunean eta, beste kasuan, Estatuko Ogasunean oker ordainduta–, bai eta auzitegi ekonomiko-administratibo nagusiaren doktrinak (2007ko uztailaren 27ko ebazpena).

Aitzitik, Auzitegi Nazionalak –1997ko otsailaren 27ko eta 2000ko martxoaren 16ko epaietan– eta Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak (Valladolideko egoitza) –2006ko maiatzaren 30eko epaian– onartu egin dute dagokion administrazioa ez den beste batean egindako ordainketak zergaduna betebeharretik askatzen duela, betiere fede txarrik ez badago. Eta azkenekoaren oinarri juridikoa hau nabarmentzen da:

«BIGARRENA.- Alderdi errekurtsogileak aurkeztutako Auzitegi Nazionalaren 2000ko martxoaren 16ko epaian adierazi bezala, Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikulua hau xedatzen du: “Administrazio Publikoak objektibotasunez zerbitzatzeko dituzten interes orokorrak, eta jarduera-printzipioa dituzten eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari osotara men eginiak”. Koordinazio-printzipioa abenduaren 28ko 30/1983 Legean, Estatuaren tributua autonomia-erkidegoei lagatzea arautzekoan, zehazten da, 19. artikuluan, zeinaren 1. eta 4. apartatuek hauxe ezartzen baitute: “1. Estatuko eta dena delako autonomia-erkidegoko administrazioek, elkarrekin eta gainerako autonomia-erkidegoetakoekin, lankidetzan jardungo dute zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta berrikusteko maila guztietan...4. Estatuko Administrazioko edo autonomia-erkidegoetako agintariek, funtzionarioek, bulegoek edo dependentziek ez

dute onartuko likidatzea beste xederik duen dokumenturik, baldin eta beste administrazio batek eskatu beharreko tributuei lotutako zerga-egitateak jasotzen baditu, egiaztatuta ez badago likidatutako zerga-zorra ordaindu dela, bulego eskudunak salbuespena deklaratu duela edo, gutxienez, dokumentu hori bertan aurkeztu dela. Gertatutako gorabeheren berri berehala emango zaio administrazio interesdunari". Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko Segoviako Ogasun Ordezkaritzak betebeharrak ez betetzeak ezin dio kalterik egin administratuari; izan ere, ordaintzeko betebeharrak materialak bete zuten, eta hura jasotzeko eskumena zuten Administrazioaren aurrean egiaztatu zuten non eta zenbat ordaindu zuten. Beraz, administratuaren fede txarra egiaztatu ez den bitartean, orain erreklamatzeko ordainketatik salbuetsita geratu behar da. Izan ere, adierazitako koordinazio-printzipioaren eraginkortasunaren ondorioz, Administrazio eskudunak nahikoa izango zukeen 30/1983 Legearen 19. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoa bete ez zuten Administrazioari aurkeztutako dokumentazioa eta kuotak erreklamatzeko, manu horretan eta Administrazio Publikoen arteko harremanak arautzen dituzten printzipioetan oinarrituta, zeinak adierazita baitaude 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 4. artikuluan.

Onartzen badugu, gehiengo den jurisprudentiaren eta doktrinaren arabera, ZAEAk Katalunian eta Galizian dituen ordezkarietara, hurrenez hurren, egindako balizko diru-sarrerak (baldin eta autolikidazioak ordaindu beharrekoak badira itzultzeko izan ordez) ez lukeela kitzatzeko baliorik izango, honako inguruabar bikoitz hau gertatzen delako: administrazioak ez du eskumenik ez materialki, ez eta lurraldeari dagokionez ere, eta eskumenik ez duela zergapekoak egoitza fiskalari buruz egindako deklarazioaren ondorioz, eta hori, hark sortutako administrazio-aurrekariak ikusita, gutxienez, zabarkeria bat dela, bada, ondoriozta

daiteke itzultzeko eskumenik ez duen administrazio horretan eginiko itzulketa-eskaerak ez diola zergapekoari ondorio mesedegarririk ekarri behar, bereziki berandutze-interesen sorrerari dagokionez. »

Horrela, Estatuari eskatutako itzulketak –baldin eta Estatuak EIABaren 15.2 artikulua bete badu– ZAEAtik lortutako zenbatekoak interesekin itzultzeko betebeharra ekarriko luke.

Halaber, zergapekoaren eta BFAREN arteko harremanetan, EIABaren 15.2 artikulua ez dakar zergapekoak eskuduna den administrazio berriari egoitza-aldaketaren atzeraeraginak ukitutako autolikidazio guztiak ex novo aurkeztu behar ez izatea, eta, horren ondorioz, berandutze-interesak une horretatik sei hilabetera sortzen hasiko dira.

Ekonomia Ituna, ikuspegi zehatz horretatik soilik begiratuta, eskumenak banatzeko arau bat da, eta, administrazioak ez ezik, zergapekoak ere lotzen ditu, lehenik eta behin; izan ere, zergapeko horiek –egoitzari, eragiketa-zenbatekoari eta eragiketa-zenbatekoaren proportzioari buruz egindako deklarazioen bitartez– ematen diote lehenik ordainarazi eta egiaztatzeko eskumena administrazio bati, eta besteari, berriz, lotura-puntuak indargabetzeko zama astuna jartzen diote eskumena eskuratuko badu, betiere likidazio-jarduketa egin nahi izanez gero.

Eta zergapekoek lotura-puntuen deklarazioan huts egin dezaketela egia izanik, horrek BEZaren neutraltasun beharrezkoa hautsi gabe, egia da kasu honetan jokabide arduragabea edo agian maltzurra dagoela zergapekoaren aldetik, eta horrek ezin dio inolako abantailarik ekarri, printzipala itzultzeko eskubidea atxikitzea hargatik eragotzi gabe.

Ilido horretan, adierazi behar da Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko Epaiak berak, zuzenbideko zazpigarren oinarrian, patologikotzat jotzen duela SADSen jokabide prozesala, eta kostuak ordaintzera kondenatzen duela; izan ere, demandatukide izan arren, errekurtsogilearen tesiaren alde agertu da, eta horrek egiaztatzen du, berari berdin baitio administrazio batek edo besteak itzultzea, nahita eta oker deslokalizatzeko borondatea duela, aurrekariak kontuan hartuta, Estatuaren egoitzan itzultzeko eskumenetik.

Horrez gain, adierazi behar da zergapekoek ez dutela alegaziorik aurkeztu ebazpen honetan metatuta aztertzen diren bi gatazketatik batean ere.

6.- Arbitraje Batzordearen jarrera berandutze-interesen inguruan

Ekonomia Itunak BEZagatik ordainarazteko eskumena Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean banatzeko arauak jasotzen ditu (bilketakoak eta itzulketakoak).

Eskumen hori lehenengo definitzen duena zergapekoa da, autolikidazioaren eta lotura-puntuei buruzko aitorpenaren bidez (egoitza fiskala, eragiketa-bolumena eta eragiketa-bolumenaren proportzioa).

Hala ere, aitorpen hori ez da aldaezina administrazioentzat, eta dagozkion egiaztapenen bidez alda dezakete.

Nolanahi ere, lotura-puntuen balorazioan egindako akats baten ondorioz, zergapeko batek bere autolikidazioa aurkeztean huts egin izanak ez du ordainarazpen-eskumenaren banaketa aldatzen, preskripzioaren indarrez administrazioek finantza-fluxuak elkarri erreklamatu ezin izatetik harago.

Bestela, BEZaren saldoak ez eskualdatzeari buruzko jurisprudenzia urratuko litzateke, zergapekoak lotura-puntuak zehazteko garaian hutsegite soil bat egin izanagatik.

Are gehiago, zergapekoak 2006. urtean sortutako jasandako BEZ kengarriaren saldoa urte horretako autolikidazioan sartu izanak jurisprudenziaren arabera ebatzi gabeko kasuari buruzko eztabaida ixten du; alegia, sortu baina aitorten batean kendu ez diren jasandako BEZaren saldoak beste administrazio bati eskualdatzearena.

Bestalde, badirudi gatazkan dauden administrazioek onartzen dutela 2005ean zergapekoaren eragiketa-bolumena 6.000.000 eurotik gorakoa izan zela, eta urte horretan proportzioaren % 75 baino gehiago lurralde erkidean kokatu zela, bai eta 2006ko ia eragiketa guztiak lurralde erkidean egin zirela ere.

Arbitraje Batzorde honek jada adierazi duenaren arabera, Auzitegi Nazionalaren 1997ko otsailaren 27ko eta 2000ko martxoaren 16ko epaiak aipatuz, 2006. urteko autolikidazioa BFAn aurkeztu izanak, fede txarrik gabe, ez du ZAEAREN ondoreez salbuesten, betiere preskripzioa gertatzen ez bada.

Era berean, 2011ko autolikidazioan Bizkaiko Foru Aldundiari egindako itzulketa-eskaerak, 2006ko autolikidazioa bezala, okerreko administrazioan aurkeztu zenak, ez du ondoreez salbuesten.

Hau da, BFAREN aurrean BEZaren saldoa konpentsatzeak eta ondoren hura itzultzeko eskaerak, lotura-puntuak behar bezala zehaztu edo zuzendu ondoren, ondoreak izan behar ditu gerora eskumena duen Administrazioaren aurrean.

Laburbilduz, BFARI egindako itzulketa-eskaerak ondoreak ditu eta ZAEARI aurkeztutzat ulertu behar da, ez baita preskribatu aipatu itzulketa jasotzeko

eskubidea, ez direnez igaro 4 urte baino gehiago kuota nahikoa ez izateagatik konpentsazioa lortzeko ezintasuna gertatu zenetik. Bestela, zergapekoak administrazio eskuduna oker zehazte hutsak –BFAk zuzenketa preskripzio-epareen barruan eginik– administrazioen artean konpentsatu beharreko saldoak ez eskualdatzeari buruzko jurisprudentzia urratuko luke.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

- 1.- Adieraztea ZAEARI dagokiola PISL zergapekoaren 2006ko BEZa ordainarazteko eskumena.
- 2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta PISLri.